



Udane Berruezo, Marisa Pedregosa eta Haizea Miranda, jai batzordeko kideak.

## Txanpontxok dakartza auzoetako lehen jaiak (eta txokolatezko txanponak)

Hemen dira aurtengo auzoetako lehenak. Bidebietan dena prest dute beraien jaietz gozatzeko. Astelehenean, hilak 4, hasiko dira, mantso, eta ostegunean abiada hartuko dute, Txanpontxo heldu, eta asteburu luzea ekarriko baitu berarekin.

📷 Maitane Aldanondo Gabilondo

**M**aiatzera heldu da egutegia eta bidebietarrek gorriz markatuta dituzten egunak gertu dira. Atzera kontaketa amaitzear dira jada: hiru egun, besterik ez. Jai hauen esperoan daudenak, ordea, ez daude soilik Bidebietan. Izan ere, hilabetetan luzatuko diren Donostiako auzoetako jaien lehen geltokia baitira Txanpontxo jaiak, festazaleen pozerako.

Ostegun arratsaldean jaitsiko da jaietz izena eta izana ematen dien pertsonaia Guardaplata bidetik, 17:30ean, Jaxikipe txarangak, erraldioiek eta buruhandiek lagunduta, eta auzoaren historiari esku emanez, —Moneta eta Guardaplata baserriak baliatzen baitzituzten itsas gizonak eta nekazariak beraien diru truketarako— txokolatezko txanponak eta gozokiak banatuko dizkie haurrei.

Ordu eta erdi geroago pregoia botako du eta kuadrillen txanda izango da, aldapan behera egiteko.

Iribarre eta esku handiko pertsonaia gorpuzteko ardura Haizea Miranda gazteari egokitu zaio. Oso pozik dago. «Bizitza guztia, txiki-txikitatik parte hartu dut Txanpontxoren jaitsieran. Jaiak iristeko irrikaz egoten nintzen Txanpontxo ikusteko. Aurten ni izateak ilusio handia egiten dit», aitortu du. Lehen, haur txokoak aukeratzen omen zuen ardura hori hartuko zue-na, baina azken urteotan, jai batzordeak bere gain hartu du. Proposamen asko jasotzen omen badituzte ere, urteren batean kostatu zaie pertsona topatzea. Aurten ez, Miranda bera antolatzaileei batu baitzaie.

Zortzi dira taldean, eta erdia, berriak dira. Horrez gain, gazteak ere badirenez, erreleboa badela bermatu dute. Duela bi bat hilabete batu ziren antolaketara, horregatik, bi hamarkada daramatzan Marisa Pedregosak dio aurten gaizki daramatela prestaketa. Urtarrilean hasi ohi dituzte zereginak, baina «berandu eta atzeratuta» joan dira. Lanpetuta badabilta ere, ziur egun handietarako dena itxita izango dutela.

Mirandarekin batera, Udane Berruezo da beste fitxaketa berrietako bat. Urteak zeramatzatzen haur jardueretan edo txosnan laguntzen eta aurten parte izatera gonbidatu dituzte, onartu dutenez, «betiko auzotarrak eta saltsa guztietako perrexila» direlako.

### Natura, gai

Natura hautatu dute gai, eta ondorioz, kolore berdea du jaien kamisetak. Halaber, horri lotutako mozorroak jantzi beharko dituzte, bai mozorro festan, bai inauteri danborradan. Animaliak, landareak, mai-tagarriak... hamaika aukera ematen ditu eta horixe espero dute, adimena martxan jarri eta askotariko pertsonaiekin betetzea larunbat arratsaldean auzoa. Haurren txanda izango da lehenik, ondoren, danborradarena, eta azkenik, ia gauerdian, helduena.

Mozorro festaren parte hartzea sustatu nahian, urteak dira gai bat

aukeratzen dutela. Hortaz, bai haurrek bai helduek adimena martxan jarri eta horri lotuta jantzi beharko dute. Horren aurretik, iaz hasitako bideari jarraituta, Thamessis konpartsak antolatutako inauteri danborradan izango dute beren jantzia erakusteko aukera. «Iaz egin zuten lehenengoz. Helburua mozorrotu eta dantza egitea da. Ohiko moduan jo beharrean, koreografia errazak —eta ez hain errazak— egitea», zehaztu du Berruezok.

### Antolatzaileen esanetan, janarekin eta musikarekin lotutako jarduerak dira arrakastatsuenak. Horietako aukera ugari daude egitarauan

Urtero jarduera pare bat barneratzen ahalegindu arren, aurtan, ez dute berritasunik. Are gehiago, baten bat galdu dute bidean. Iaz, jaietako tradizio bat izandako Herri Krosa berreskuratu zuten, hamarkada inguruko etenaren ondoren, eta arrakastatsua izan bazen ere, antolatu zuten boluntarioek ez egitea erabaki dute.

Arrakasta duenari eutsi diote, bi ardatz nagusirekin: musika eta jana. Bost bat urte dira DJ-ak dakartzatela bosgarren blokeko agertokira, eta auzotar ugariz gain, kanpotik ere jendetza etortzen da. Mitx DJ-ak girotuko du larunbat gaua, eta Jo Ta Txok jaien agurra. Erakarmen handia du ere Txanpontxo Rock jaialdiak. Ostiralean, Band Jovi, Kontraband eta Infama taldeek joko dute zuzenean. Jatekoetan, berriz, paella, oilasko edo sardina jatea, saltseroen afaria, kuadrillena... Patata tortilla lehiaketa ere gero eta parte hartzaileagoa da; iaz, hamazazpi izan zituzten aukeran.

Motorrak berotzen hasteko, astelehenetik izango da jardueraren bat, esaterako, *Zorionak Marimotots* ikuskizuna, iazko arrakasta errepikatze gogoz. Horretarako eta gainerakoetarako, eguraldi ona besterik ez dute eskatu antolatzaileek. ●



## ASTELEHENA 4

**18:00**

Haur danborradaren azken entsegua, Isasa parkean.

**19:30**

Danborrada herrikoia azken entsegua, Bidebieta elkartearen (6. blokea).

## ASTEARTEA 5

**18:00**

Porrotx eta Marimototsen *Zorionak Marimotots* ikuskizuna, 5. blokean.

## ASTEAZKENA 6

**19:00**

Futbito txapelketaren finalaurrekoak, 5. blokean.

## OSTEGUNA 7

**17:30**

Txanpontxoren jaietsiera erraldoi eta buruhandiekien Jaixkipe txarangaren konpainian.

**18:30**

Haurtxoko eskulanak, jaietarako zapiak margotzen, Bidebieta parkean.

**19:00**

Futbito txapelketaren finala, 5. blokean.

Txanpontxoren pregoi irakurketa eta kuadrillen jaietsiera Joselontxos txarangarekin, 10. bloketik.

**22:00**

Saltseroentzako afaria Bidebieta elkartearen (15€). Txanpontxo 2026 kamiseta ekartzen baduzu, afaria dohain!

## OSTIRALA 8

**17:00**

Erraldoi eta buruhandiekien trikitalariekin, Guardaplata bidetik.

**17:30**

Haur eta gazte eguna, Allende parkean:  
- Haurrentzat (5-11 urte) puzgarriak eta jolasak.  
- Gazteentzat (12-17 urte) futbol, billar, puzgarria eta jolasak.

**18:00**

Batxata dantza erakustaldia, Jubilatuen Etxean.



**18:30**

Jubilatuen miss eta misterra, Jubilatuen Etxean.

**19:00**

Haur eta gazteentzat txokolate jana, Allende parkean.

**19:30**

Helduentzat billar txapelketa, Alai tabernan.

**20:00**

Afari herrikoa (paella) 5. blokean.

**22:00**

Txanpontxo Rock XVI: Band Jovi, Kontraband eta Infama, 5. blokean.

**LARUNBATA 9**

**Aurtengo gaia: Natura**

**10:00**

Saskibaloia guztiontzat. Txikientzat jolas eta jarduerak, helduentzat gaitasun zirkuitua. Askatuak saskibaloit taldearen eskutik, Bidebieta parkean.

**Irutxuloko Hitz**

**11:00**

Apar festa, Askatuak saskibaloit taldearen eskutik, Bidebieta parkean.

**11:30**

Patata tortilla lehiaketa, Peña Taurina kanpoaldean.

**12:00**

Bidebietako gaiteroen kontzertua, Uliazpi elkarte aurrean.

**12:30**

Pintxo-potea, Peña Taurinan.

**13:00**

Haur danborrada eta erraldoiak Ilargi txarangarekin.

**13:00**

80 urte betetzen dituztenei banda ematea, udalaren eskutik, Jubilatuen Etxean.

**14:00**

Laurogei urte betetzen dituztenen bazkaria, Jubilatuen Etxean.

**14:00**

Bazkari herrikoa (oilaskoa), 5. blokean.

**17:00**

Mus txapelketa azkarra, Peña Taurinan.

Haurrentzako animazioa Tximeletaren eskutik, Allende parkean.

**17:30**

Danborrada herrikoa Jaixkipe txarangarekin, 6. bloketik.

**18:00**

Haurtxoko eta gaztelekuan Txanpontxoren ospakizuna eta *merendola*.

**19:00**

Meza, San Frantzisko Jabier elizan.

**19:30**

Haurrentzat disko festa eta mozorro festa, frontoian.

**20:00**

Mozorro festaren hasiera.

Ez da edozein danborrada, inauteri danborrada bat da.

**21:30**

Zezensuzkoa, 5. blokean.

**22:30**

Mitx DJ-a, 5. blokean.

**23:30**

Mozorro lehiaketa, 5. blokean.

**IGANDEA 10**

**Goizean zehar**

Merkatua, bertako produktuekin.

**09:00**

Diana auzoan zehar.

**10:00**

Puzgarriak, Allende parkean.

Aurpegi margoketa doan, Allende parkean.

Petanka txapelketa, Jubilatuen Etxean.

**11:00**

Euskal dantzak 5. blokean, Herri Ametsa ikastolaren eskutik.

**11:00-15:00**

Sagardo eguna.

**12:00**

Apar festa, Allende parkean.

Toka eta bote txapelketa mistoa, Erreka tabernan.

Jubilatuena luntxa,  
Jubilatuena Etxean.**18:00**Herri kirolak, 5. blokean:  
Uxue Ansorregi - Mendarokoa  
Julen Kañamares - Arostegikoa  
Peio Kañamares - Arostegikoa, motozerra.**19:00**

Sardina jate herrikoia, 5. blokean.

Txanpontxori agurra eta Txanpontxoren marrazki lehiaketako irabazleari saria ematea, 5. blokean.

**19:30**

Jo Ta Txo DJ-a, 5. blokean.

**22:00**

Bidebieta argituko dugu Txanpontxori agurra emateko, 5. blokean.

## ASTELEHENA 11

**Haurren eguna****Egun osoan zehar**

Atrakzio guztiak 2€.



Gora Txanpontxo jaiak!  
**OSASUNEAN INBERTITU!**

- TERAPIA MANUALA
- TERAPIA LINFATIKO INTEGRALA

Juan XXIII.aren pasealekua, 6, 20016 Donostia · Tel.: 696-92 41 54